BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3766

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 6koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, 2011ko ekitaldiari dagokionez, «Etorgai Programa» delakoaren barruan industria-ikerketako eta garapen esperimental estrategikoko proiektu integratuak Euskal Autonomia Erkidegoan burutzeko, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematera bideratutako baliabideak gehitu direla argitara emateko dena.

2008ko abuztuaren 6ko Aginduak, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarenak, EAEn industria-ikerketarako eta garapen esperimental estrategikorako proiektu integratuak egiteko laguntzen «Etorgai programa» arautzen du.

Agindu horren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak Ebazpena eman zuen 2010eko abenduaren 22an, «Etorgai programaren» esparruan Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak industria-ikerketarako eta garapen esperimental estrategikorako proiektu integratuak egiteko 2011ko ekitaldiko laguntzak emateko (2010eko abenduaren 30eko EHAA, 250. zk.).

Laguntzen deialdia aldez aurretik egin zen, ekitaldi honetako urtarrilaren 1etik egindako proiektuak gastu subentzionagarri gisa onartzeari begira, jakin gabe zein izango zen xede horretarako aurrekontu-kredituaren behin-betiko zenbatekoa.

Horiek horrela, eta I+Gko gastu publikoa handitzeko eta laguntza-programa honen beharrak betetzeko xedez, aipatutako aginduak ezarritako eskumenak baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Etorgai programaren esparruan, 2010eko abenduaren 22an egindako laguntza-deialdiaren ebazpenean (2010eko abenduren 30eko EHAA, 250. zk.) aurreikusitako baliabide ekonomikoak 2011ko ekitaldirako 34.066.162 euroko kopurura igotzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan, arlo horretarako izendatutako aurrekontu-krediturari jarraituz, honela banakatuta: 11.660.264 euro 2011ko ekitaldirako, 12.405.898 euro 2012ko ekitaldirako eta 10.000.000 euro 2013ko ekitaldirako, hurrenez hurren.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 6a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.